

EMAKUMEAREN DESBERDINTASUNA HISTORIAN ZEHAR EZAGUTZEA.

OINARRIZKO KONTZEPTUAK.



Jasotzen dutena baino askoz gehiago ematen duten emakumeei eskainita.
Garbi izan behar da eguneroko jarrera horretatik sortzen dela frustrazioa.
Baina, beti dago aldatzeko aukera.

Arantza Miguel Martínez
2016

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	4
Historiaurrea	5
Protohistoria	10
Antzinaroa	14
Tradizio judeokristaua	16
Grezia	26
Erroma	30
Erdi Aroa	35
Erizaintza: Erdi Aroko emakumeek benetan nagusi ziren esparrua.	41
Gaur Egungo Aroa	43
Frantziako Iraultza	44
Industria-iraultza	47
Kontzientzia feminista sortzeko XIX. mendean eragina izan zuten emakumeak	48

XX. mendea	51
1. olatu feminista	51
XX. mende hasierako gertaerak	52
Emakumeentzako Sufragio unibertsala	57
Espainiako estatua: emakumeek bozkatzea lortu izana	58
Gerra zibila eta emakumeak herbestean	60
Espainiako diktadura	61
2. Olatu feminista (1960tik 90eko hamarkadara)	63
3. Olatu feminista (90eko hamarkadatik gaur egunera arte)	69
Generoa	70
Zergatik ospatzen da emakumeen nazioarteko eguna?	77
Garbi eduki beharreko kontzeptuak	80
Genero desberdintasunetik eratorritako arazoak	83
Ondorioak	85
Webgrafia	86

HITZAURREA

Ez daukat garbi, edo bai, zerk eraman ninduen hain sentibera izatera emakumearen sufrimenduarekin.

Egia esan, laster sentitu nuen nire larruan lanak banatzerakoan, tratuan, begirunean, aukeretan, itxaropenetan eta abarretan zegoen ezberdintasun hori. Matxismo hitza entzun nuenean oso ondo ulertu nuen.

Emakumearen ezberdintasun hain frustragarri horren zergatia jakin nahiak arazo hori ulertzen lagundu zidaten irakurketetara eraman ninduen. Feminismoaren kontzeptu duin eta benetakoa ezagutzea askatzailea izan zen niretzat. Sexismoa. Genero ezberdintasuna. Berdintasuna. Errealitate hori ikusezin den zerbaitek sortzen duela ulertu arte, zerbait oso fina, agerian ez dagoen zerbait, zerbait nahasia eta izendatzen ez den zerbait. Niretzat argigarria izan zen.

ADNan daramagun milaka urteko patriarkatua zen, eta ondorioz, gure pentsamendu, hitz, egindako, eta baita ez-egindako guztia ere, matxista zen.

Hitz batez, lehen, orain bezala, gaia zenbat eta gehiago ezagutu gero eta gehiago haserretzen naiz:

Haserretzen nau historialari/hezitzaileek gizon-emakumeen arteko harremanaren ideia faltsu eta injustua zabaldu dutela. Eta, era berean, haserretzen nau emakumeek historian zehar egindako borroka ez zabaldu izana.

Haserretzen nau komunikabideek ez tratatzea gai hau merezi duen errespetuarekin, eta feminismo kontzeptuaren negatibotasunaren eta patriarkatua ez ezagutzearen arduradun izateak, eta baita jarrera eta pentsamendu lotsagarrien bozgorailu izateak ere.


Batez ere, haserretzen nau emakumeen frustrazioa egunero ikusteak, eta dagoen oinarrizko kultura eskasa horietako zati bat nondik datorren ezagutzeko. Honekin, neuk nire hondar aletxoak jartzea nahi dut.

Nire lana da emakumearen egungo desberdintasun egoerara nola iritsi garen ulertzeko oso oinarrizko informazioa aurkeztea. Gizonari ere eragiten dion egoera. Guztioi zuzendutako informazioa da, guztiok ezagutu beharko genukeena, batez ere, gazteek.

Egiaztatutako informazioa bilatu dut, ugaria da eta oso sakabanatuta dago. Nire lana hori biltzea eta modu linealean aurkeztea izan da. Zailena oinarrizkoa aurkeztea izan da, esateko asko gelditu zait.

Zure gustukoa izatea espero dut, eta kontzeptuak ezagutzen eta ideiak argitzen lagun diezazula; baliagarria izan dakizula jarrera hartu eta aurrera egiteko, eta, batez ere, jokabideak aldatzeko. Guztion artean gizarte justuagoa eta zorientsuagoa egiteko lagungarri izan dadila.

HISTORIAURRE



Lehenengo antropologoek, **zehaztasun zientifiko gutxirekin, lan banaketa egin zuten:**

- Gizonenak teknologia, teknika eta ezagupenak behar zituzten: ehiza, arrantza, artea, tresnak, eraikuntza eta abar. Eginkizuna: nagusia historian.
- Emakumearenak mantenimendukoak ziren: janariak prestatzea, higiene eta osasun baldintzez arduratzea eta familiako beste kideak zaintzea. Eginkizuna: bigarren mailakoa.

Emakumeak gutxietsi izan ditu historia ofizialak eta gaizki tratatuak benetako historian. Bereziki, historiaurrean, lehenengo antropologoen beraien ondorioak ezagutarazterakoan emakumearen agerpena eta zeregina ez zen existitzen presentzia. Horrela, emakumearen menpekotasunaren aurrean gizonezkoak zeukan zeregin nagusia indartu egin zen eta gizonezkoek eurek ere barneratuta zeukaten irudi hori.

Alabaina, garai horri buruzko informazio iturri guztietan emakumea eta gizona berdin agertzen dira, esaterako, hilobietako arreoetan honako hauek aurkitzen ditugu:

- Ehorzketa bateratuak: taldeko kide guztiak berdin lurperatzen ziren.
- Bikoteka egindako ehorzketak: gizabanakoen arteko bereizketa ikus daiteke, baina, ez gizonezkoaren eta emakumezkoaren artekoa.
- Ehorzketa indibidualak: badira emakumezkoen hilobiak lurra lantzeko, ehizarako, arrantzarako eta gerrarako tresna eta lanabesak dituztenak (gizonezkoenetan agertutakoak bezalakoak).



Garai hartako beste informazio iturri bat labar-pinturak dira.

XX. mende amaieran, Dean Snow arkeologo estatubatuarrek ehundaka leizezulo aztertu zituen Frantzian eta Espainian, eta ondorioztatu zuen labar-pintura gehienak emakumezkoek eginak zirela.




Altamirako leizezuloak. Mundu osoan ezaguna eta entzutetsua den Eduardo Galeano (XX. mendea) idazle, behatzaile eta pentsalaria izan zen horrelako pinturak egiten emakumeak imaginatu zituen lehenetariko intelektuala: ... zergatik ez? “... Baliteke historiaurreko pinturak, edertasuna sortu zutenak munduan, emakumeek eginak izatea...” E. Galeano.

Lehenengo antropologoek ez zuten beharrezko teknikak izango pinturak nork egin zituen jakiteko, baina, **zergatik kostatu zitzaion imajinatzea emakumeek eginak ere izan zitezkeela?**

Beste informazio iturri bat arte higigarria da, adibidez, *paleolitikoko venusak*, emakume tailu bikainak. Eta, beraien esanahaia oraindik eztabaida gai bada ere, agertutako tailu kopuruarengatik **eztabaida ezina dena da emakumeen garrantzia gizarte haietan.**



Matriarkatua aipatu beharra dago, gizartearen aro horrekin lotzen den kontzeptua delako.



Arkeologo askok onartzen dute ohikoa izanik **emakume-amak** izatea taldearen oinarrizko kanpalekuan zeudenak erditu eta umeei bularra eman behar zitelako, emakumeek eginkizun garrantzitsua zuten talde horietan, eta hainbat **matriarkatu (amek nolabaiteko lidergoa duten gizarte egiturak)** modu garatu ziren. Aldeko izan zuten ez zela ezagutzen gizonaren eta jaiotako umearen arteko lotura, eta horregatik, “ama” izatea idolatratua zen.

Gaur egun, gizonaren rola emakumearena baino nagusiagoa den historiaurreari buruzko ikuspegi hori zalantzan jarria dago aspalditik.

Badakigu talde horiek bizirauteko beharrezkoa zutela kide guztiak elkarlanean aritzea bakoitzak ahal zuen guztia emanda. Zentzu horretan, esan daiteke komunitate berdintasunezkoagoak zirela, guztiek baitzuten euren gaitasunak garatzeko aukera guztion mesedetan. Lan banaketa zegoen, eta lana bakoitzaren gaitasunen arabera egiten zen.



HISTORIAREN HASIERATIK GIZONEZKOAREN ZEREGINA EMAKUMEZKOARENAREN ALDEAN “BEREZKO IZAERAZ” NAGUSITASUNEZKOA DELA DIOEN IDEIA ERABAT FALTSUA DA.

PROTOHISTORIA

Historiaurretik Antzinaroaren hasiera arteko denbora da.

Idazketa erabiltzen ez duten, baina, behar besteko informazio arkeologikoa uzten duten komunitateak dira.

Idazketa erabiltzen zuten herriek ere ematen duten horien berri.

Orokorrean, Metal Aroan garatutako gizarteak dira, idazketa erabiltzeko eta estatu txikiak eratzeke oso gutxi falta zitzaienak.




EMAKUME ZELTAK:

(guzti hau historialari grekoengatik dakigu)

- Norekin ezkondu aukera zezaketen.
- Ezkontideak hori ziren, kideak, inor ez zen bestearen jabetzako.
- Emaztea bere ondasunen jabe bakarra zen.
- Garbitzea eta erakargarri azaltzea gustatzen zitzaien, baina, beharrezkoa zenean gerlari basati bihurtzen ziren, bereziki, taldea babestu behar zutenean.
- Boterera iristen ziren eta boterean jarduten zuten.
- “Ezer ez ederragorik eta basatiagorik emakume zelta bat baino”





- Gertuago espazioan eta denboran, BAZAko DAMA, Eskultura iberiarra (K.a. IV. mendea):
- Aparteko balio artistikoa duen errauts kutxa.
 - Arreo aberatsa zuen, armak eta gerrarako tresnak barne.
 - Horrelako arreo izanda, gerlari garrantzitsu baten hilobia izango zela pentsatu zen.
 - 30 urtetik beherako emakume baten gorpuzkiak zirela baieztatu zenean beste aukera batzuk ireki ziren: erregina? Emakume apaiza?
 - Zalantzan ez dagoena da emakume honen garrantzia, boterea izan zuela eta errespetatua eta obeditua izan zela.

Horrek erakusten du **emakumeak rol garrantzitsua zuela komunitate horretan, soilik 500 urte Kristo aurretik.**

(Greziako emakumeek ia baliogabetu zituzten euren eskubideak garai horretarako).

Historian ezagunena: KLEOPATRA (K.a. I. mendea, Egipto)



- Emakumeek eskubideak eta askatasunak izan zituzten Egipton. Gorenko boterea izateko eskubidea zuten, gizonen parekoa. Kleopatra da horren adibidea.
- Emakume ikasia eta inteligentea, bere aitarengandik heredatu zuen tronua 18 urterekin, K.a. 51. urtean.
- Azpijoko eta amarru politikoetan aritua eta horien biktima, garai hartako edozein gizon estatu bururen moduan.
- Politikari bezala zuen trebetasuna eztaba daezina da, krisi ekonomikoa eta soziala bere herrialdean zabaldu zenean egindako lanarekin erakutsi zuen bezala.
- Bere bizitza paregabea izan zen, eta ustez gizonezkoenak diren dohain ugari onartu zitzaizkion.

Ondorioa argia da, gizateria Historian bete-betean sartu aurretik baziren komunitateak non emakumeak bere tokia eta eskubideak zituen eta gizarte edo erlijio hierarkiaren gorenera iris zitekeen, gizonek bezala; eta ez, beraien menpe.

Antropologiak, orain onartzen du munduan zehar garatu ziren komunitateen bizitzeko eta harremanak izateko modu asko izan zirela, eta **komunitate gehienetan gizonek rol nagusia zuten idea zabala ez datorrela bat errealitatearekin eta oso bidegabea dela emakumeekin.**

HISTORIA: ANTZINAROA

MENDEBALDEKO ZIBILIZAZIOAREN OINARRI HIRU ZUTABE HAUEK DIRA:

Tradizio judeokristaua



Greziar zibilizazioa

Erromatar zibilizazioa



Europa edo europear kultura, geroago mendebalde guztira zabalduko zena, hiru kultura hauek utzitako heredentziaren emaitza da: tradizio judeokristaua, greziar zibilizazioa eta erromatar zibilizazioa.

Hiru kultura horiek lagundu zuten gaur egun inguratzen gaituzten diziplina guztiak garatzen: artea, literatura, zientziak, historia, zuzenbidea, politika, hezkuntza, medikuntza, arkitektura... DENA.

Esan daiteke eragin hori jende gehienak gutxiago edo gehiago ezagutzen eta onartzen duela. Hala ere, **nahiko ezezaguna da nola eragin zuten emakumeengan.**

Tradizio judeokristaua, garrantzitsuena da, zaharrena, gehien iraun duena eta hiru eraginetatik emakumeentzako kaltegarriena da. Bi zati bereizi behar dira:

Judaismoaren jatorria (K.a. 3.000): monoteismoa eta patriarkatua jaio, ezarri eta zabaltzen dira. Emakumeen aurkako bi tresna sozial indartsuak.

Kristautasunaren sorrera, Jesus-Kristok predikatu zuena eta **katolizismorako** bilakaera. Katolizismoak interesatu zitzaiona hartu zuen kristautasunetik, eta hebrear mitoak berreskuratu, moldatu eta inposatu zituen nagusitu zen toki berrietan.

Kristautasuna sortu baino lehen **Greziar Zibilizazioa** loratu zen. Demokrazia definitu zuten eta gaur egun gobernatzen diguten printzipioak ezarri zituzten. Baina, emakumea erabat baztertu zuten, inolako begirunerik gabe.




Gero, **Erromatar Zibilizazioa** garatu zen. Zuzenbide erromatarra sortu zuten, erromatarren arteko bitzta justuago lortzeko lege idatziak. Baina, orokorrean, emakumea baztertua zegoen justizia horretatik.

TRADIZIO JUDEOKRISTAUA: JATORRIA JUDAISMOAN.

Judaismoaren jatorria, beste erlijio/filosofia batzuen bezala, Ekialde Hurbilean eta gizarte protohistorikoetan dago: gizarte txikiak, erdinomadak, sakabanatuak, nekazaritza eta artisautza garatzen ari zirenak, soberakinak izaten hasten direnak, eta beraz, jabetza pribatua.

Gero eta jende gehiago bizi da kokaguneetan. Era berean, umeen aitatasuna ezagutzen denez, jabetza pribatu “zabalduren” kontzientzia sortzen da: nire lurra, nire etxea, nire emaztea eta nire seme-alabak. Dena garatzen ari zen, eta agintari politikoek ikusi zuten beharrezkoa zela jende guztia eta euren jabetzak arautzea eta kontrolatzea.

Gizarte politeistak ziren, jainko eta jainkosa unibertso oso bat zutenak, beraien arteko harreman eta lehiaren muga kaotikoekin. Erlijio buruek konturatu ziren arlo horretan ordena jarri behar zutela, eta gainera, jendeak ere hori eskatzen zuten.



JUDAISMOAREN JATORRIA:

Monoteismoaren eta patriarkatuaren jatorria.

Agintari politiko eta erlijiosoek, denak bat ez baziren ere, bat egingo zutenak, bi tresna handi erabili zituzten ordena eta kontrola jartzeko: monoteismoa eta patriarkatua. Elkar elikatzen zuten bi tresna.

MONOTEISMOaren abantailak itzelak ziren, Jainko bakarra izanda, Egi bakarrarekin, bizitza interpretatzeko modu bakarrarekin, askoz ere errazagoa zen “eramanak” izateko prest zeuden pertsona ugari horiek “eramatea”. Eta, bestela, Jainkoak “esaten” zuen zer zigor jasoko zuten Egi bakar hori errespetatzen ez zutenek. Beste abantaila bat zen monoteismoak lurraldetasun kontzeptu zabalagoan biltzen zuela jendea politeismoak sortzen zuen lurralde sakabanaketak baino. Abantaila handia izan zen erlijioaren bidez herria menperatuta izatea.

PATRIARKATUAREN abantailak: emakumea menpean hartzeak gizonari ahalbidetzen zion bere ondorengoak kontrolatzea, eta agintari politikoei biztanleriaren erdia kontrolpean izatea horretarako ahalegin handirik egin gabe.



JUDAISMOA: monoteismoaren inposizioa.

Politeismotik monoteismorako trantsizioa judaismoan:

- Abrahamek (judaismoak izandako patriarketako bat, K.a XX. mendea) monolatria sustatu zuen (hau da, onartzen du hainbat jainko daudela, baina, bakarrik batek merezi du gurtzea). Eta, Moisesen garaian (K.a. XIV. Mendean), jendeak beste jainko batzuetan sinesteari utzi eta Jahvehengan sinesteko borrokan ari ziren.

- Trantsizio horren zenbait froga Testamentu Zaharreko testuetan:

"Orain bai, badakit jainko guztien aldean **handia dela Jauna...**" (Irteera 18:11).

"Nor zu adinakorik, Jauna, **jainkoen artean?** (Irteera 15:11).

"Ez egin idolorik,... Ez ahuspeztu haien aurrean" (Irteera 20:5).

"**Ez ahuspeztu beste jainkoen aurrean**" (Irteera 34:14)

"... **jainko guztien aldean...**" (Salmoak 96:4, 97:9)

"Eskerrak eman **jainkoen Jainkoari...**" (Salmoak 136:2)

"**Zein zu bezalako Jainkorik...**" (Mikeas 7:18)



(Dekalogo, lehenengo agindua) "Ez izan ni beste jainkorik" (Éxodo 20:3).

Behin MONOTEISMOa ezarrita (K.a. V. mendea), oso erraza egin zitzaien herria menperatzea nahi zuten botere-eliteei herria kontrolatzeko legeak egitea. Besteak beste, patriarkatua inposatzea.

JUDAISMOA: monoteismoaren eta patriarkatuaren arteko harremana

Nola berrelikatzen dira patriarkatua eta monoteismoa?

Familia buruaren nagusitasun sentimenduaren hazia izanik, zeuden Jainko eta Jainkosa guztien artetik Jainko Aita, Jauna eta Sortzailea aukeratu zuten. Gizontasun hori ez da arbitrarioa, Jainkoaren ordezkariak lurrean, gaur egunera arte, gizonezkoak izan baitira.

Jainko maskulinoaren irudia aita patriarkalaren sinbolo ideologikoa da: Testamentu Zaharrean Israelgo herria bere “emaztetzat” eta “seme-alabatzat” hartzen du Jainkoak, eta harreman kontzeptu horrek Testamentu Berrian jarraitzen du Kristoren eta Elizaren artean.

Jainkoaren maskulinitatearen mitoa gizarte patriarkal batean sortzen da, eta gizonaren nagusitasun “naturala” eta bere dominazioa onargarri egiteko balio du. Gizona eta emakumea parekatuta zeuden gizarteetatik (gizarte politeistak) gizona nagusiagotzat jotzen den gizarteetara (gizarte monoteistak) igarotze hori argi eta garbi ikusten da Biblian.

Hasieran, bi bertsio ditugu gizakiaren sorreraz:

- Lehenengoan: “Jainkoak, beraz, bere antzeko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudira egin zuen; ar eta eme egin zituen” (Hasiera, 1, 27).

Bertsio horretan ez da inolako ezberdintasunik gizonaren eta emakumearen artean sorrera ekintzatik.

- Hurrengo kapituluan: “Jainko Jaunak gizonari kenduriko saihets-hezurrez emakumea moldatu eta gizonari eraman zion... Honek esan zuen: «Hau bai dela ene hezuraren hezur, ene haragiaren haragi! (Hasiera 2, 22-23).

Bertsio hori ezagunagoa da, eta emakumearekiko gizonaren nagusitasun eta dominazio konnotazioak ditu. Ideia hori behin eta berriz justifikatu dute elizako gurasoek gizaldi eta gizaldietan.

Bilakaera interesatu horren moduko adibide askoz ere gehiago daude. Horietan garbi ikusten da monoteismoak, bere Jainko ahalguztidunari sinesgarritasuna emateko, patriarkatua egonkortzea behar duela, eta patriarkatuak, berriz, monoteismoak bere Egia inposatzeko erabiltzen duen eragina behar duela.

JUDAISMOA: patriarkatuaren inposizioa I.

Behin gizona jabetu zenean bera zela bere seme-alaben sortzailea, heredentziaren aitalerroa bermatuko zuen gizarte antolaketa behar zuen. Horrela, boterea betirakotu ahal izango zuen.

Aita-lerrotasuna bermatzeko modu bakarra emakumearen sexu jarduerak zorrotz kontrolatzea eta arautzea da, lege hebrearrek arautu zuten moduan:

EMAKUMEEN SEXUALITATEA: bekatuzkoa zela erabaki zen. Sexuarekiko bekatuzkotasun hori emakumeena zen soilik, ez gizonena; horiei “auzokoaren emaztea ez umiliatzeko ” eskatzen zitzaien bakarrik.



AITATASUNAREN SEGURTASUNA: Medianiten aurkako gerra batean, Moisesek honakoa agindu zuen: ” Orain, bada, hil mutikoak eta sexu-harremanak izan dituzten emakume guztiak; 18 utzi bizirik, ordea, eta hartu zeuentzat neskak birjinak” (Zenbakiak 31:17-18). Argi eta garbi, aitatasunaren ezagutza/kontrola segurtatzeko neurria da hori.

EZKON AURREKO BIRGINTASUNA: soilik emakumeentzako. “Baina salakuntza egia izanik, neska ez zela birjina egiaztatzen bada, aitaren etxe-atarira eraman eta hiriko gizonek harrika emango diote hil arte”.Deuteronomioa (22:20-21).




JUDAISMOA: patriarkatuaren inposizioa II.

BORTXAKETA: “Gizon batek emakume bat bortxatzen bazuen, emakumearen senarrak edo aitak bortxatzailearen emaztea edo alaba bortxatu behar zuen, edota bortxatzailea bortxatutako emakumearekin ezkondu behar zen. Bortxatua ezkondua bazen edo norbaiten andregai, heriotzera zigortua izan zitekeen.



ADULTERIOA: gizonezkoarena normaltzat jotzen da, betiere, adulterioa ezkondu gabeko emakumeren batekin edo norbaiten andregaiarekin egiten ez badu. Horrelako kasuetan, berriz, legez kanpokoa da, beste gizon baten jabetza pribatuaren aurka doalako.

HEREDENTZIA MASKULINOA: legeak oso zorrotzak ziren herentzia gizonezko oinordekoek jaso zezaten. “Gizon bat semerik gabe hiltzen bada (bere bekatuagatik), haren ondarea alabaren eskuetara pasatuko da. Eta alaba nahi duen gizonekin ezkon daiteke, bere aitaren leinuko senitartekoa izatekotan” (Zenbakiak 36:6).



EMAKUMEA GIZARTE-BIZITZATIK BAZTERTZEA: emakumea arlo guztietatik (hezkuntza, kultura, politika...) baztertzen zuen lege zorrotzagoak ezarri ziren, horrela, beraiekin egon zitezkeen arazoak saihesten ziren.

Behin erlijio eta kultura juduak emakumeenganako bazterkeria santututa, emakumeei inolako aukera bideragarririk eskaintzen ez zien gizarte antolaketa mota bat garatzen joan zen.

Emakumeen eremua etxea izaten hasten da, nahiz eta, jakina, lanean jarraituko duten nekazaritzan eta abeltzantzan.



HEMEN HASI ZEN LANA SEXUAREN ARABERA BEREIZTEN:

- **GIZONEZKOA: ARLO PUBLIKOAN** (ERLIJIOA, POLITIKA, HEZIKETA, EPAITEGIAK, BANKA, ETAB).
- **EMAKUMEA: ARLO PRIBATUAN:** ETXEA, FAMILIA, ELIKADURA ETAB.

HEMEN HASI ZEN GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO HARREMANETAKO DESBERDINTASUNA:

- **GIZONA: NAGUSITASUNA ETA DOMINAZIOA**
- **EMAKUMEA: AZPIAN ETA MENPEKOTASUNEAN**

KRISTAUTASUNA

JESUKRISTO berdintasun handiagorekin tratatzen ditu emakumeak, komunitateko kide dira eta irakatsi eta defendatzen ditu. Inoiz ez du emakumeen aurkako ezer kaltegarririk esaten. Ez die jaramonik egiten erlijio testuetan agertzen diren mespretxuzko adierazpenei.

Jesuentzat emakumeak gizonaren errespetu bera merezi du. Bere komunitatea mistoa da, emakumeak eta gizonak elkarrekin bizi dira eta alde guztietara jarraitzen diote. Emakumea presente egongo da bere bizitzako une garrantzitsuenetan.

Jarrera hori, bere garaiko konbentzionalismo soziala hautsiz, benetako berritasuna izan zen. Garai hartako beste maisu batzuekin alderatuz, bakarra izan zen.



Jesusi jarraitzen zioten emakumeak

... Jesus, Jainkoaren erregetzaren berri ona hots eginez. Berekin zituen Hamabiak, baita espiritu gaiztoetatik eta gaitzetatik sendatuak zituen zenbait emakume ere: Magdalako Maria –honengandik zazpi deabru bota zituen–, Joana –Herodesen etxezain Kusaren emaztea–, Susana eta beste asko. Guztiok beren ondasunez laguntzen zieten Jesusi eta honen ikasleei.

Lukas 8 1-3

Adulteriogilea

–Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek legean honelakoak harrika hiltzeko agindu zigun...

Haiek, ordea, galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu zen Jesus eta esan zien:

–Zuetan bekaturik gabe dagoenak jaurti diezaiola lehen harria.

Juan 8 4-7

KATOLIZISMOA

Zoritxarrez, JESUKRISTOREN JARRAITZAILEEK ez zuten emakumearekiko jarrera bera izan.

Judaismoaren tradizioak transmititutako emakumearen izaera ahula eta bekataria justifikatu zuten, eta bi aukera kontrajarriak eskaini zizkioten: amatasuna eta birjintasun sagaratu.

Bietako batean ere ezin du emakumeak patriarkatuaren dominazioa gainditu.

Emakumea ama izan daiteke, baina ez edozein ama, sexualitatea umeak izatera mugatua duen ama izan behar da, eta gero, familia osoa zaintzeko bere buruari uko egiten diona. Ama mota horren rola indartua eta santutua izan zen.

Amatasunaren ideologia horrek emakumea ama izanda bakarrik errealizatu daitekeela dakar, ama ezaugarriak funtsezkoak dira eta emakume orok berezko ditu, eta umeen hazkuntzan inplikatzeko galarazten diote gizonezkoari.

Emakumeari gelditzen zaion beste aukerak ere, birjintasun sagaratuak, sexu ezaugarriari uko egitea dakar. Emakumeak ez badu ama rola betetzen, egin dezakeen gauza bakarra gizartetik erabat baztertzea da.

Sozialki, amatasun mota hori edo birjintasuna santutzeak jabegoa aitaren aldeko familian gelditzen dela esan nahi du, eta sexuen arabera lan banaketa justifikatzen du: emakumea etxean/komentuan gelditu behar da eta gizona da bestelako gauzak egin behar dituen. Horrela, oso leunki, emakumeak gizarte, ekonomia eta politika arloetan garatzeko duen aukera ametsezkoa da.

Efesoarrei gutuna:

“Emazteak izan daitezela beren senarren menpeko, Jaunaren menpeko bezala, senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala..., **eta emazteak izan biezaio begirune senarrari”**

Pablo 5 22-33



KATOLIZISMOA: BERE BURUARI UKO EGITEN DION AMA

SANTUTZEA. Katolizismoak juduen tradizioa hartzen du emakumea gutxiago dela justifikatzeko (ahula eta bekataria) eta bete dezakeen rol bakarra ezartzeko: bere buruari uko egiten dion ama. Horretarako, Biblian agertzen diren bi mito erabiltzen ditu: jatorrizko bekatuaren mitoa eta

Jaungoikoa Ama Birjinaren sabelean gizon egitearen mitoa

Jatorrizko bekatuaren mitoa munduko gaitza eta sufrimendua azaltzea da. Gaitza gizakiengan sortzen da, Jainkoaren borondatea ez obeditzearen, baina emakumea egiten du horren erantzule txolina, seduktorea, tentazioaren biktima izategatik. Eva bekataria da.

Elizako agintariek horrela justifikatzen dute emakumeak izaera ahula duela. Ezin da libreza izan. Bere partez erabakiak hartuko dituen jabe bat behar du. Senarraren pean jartzen dute.

Debekatutako fruitua Evak jan ondoren, Jaungoikoak esan zuen:

“Haurdun gelditzean, oinazeak ugalduko dizkizut eta saminez izango dituzu haurrak; irriksak senarrarengana bultzatuko zaitu, eta hura izango duzu nagusi”




Elizako agintariek Jaungoikoa Ama Birjinaren sabelean gizon egitearen mitoa erabiltzen dute emakume onak dituen ezaugarriak inposatzeko eta amatasuna santutzeko.

Ama Birjinak apaltasuna, xumetasuna, eskuzabaltasuna, sakrifizio gaitasuna, eta, batez ere, datorkiona etsi onez onartzea: “Jainkoaren zerbitzaria naiz”. Emakumeak umiltasunez eta etsi onez onartu behar du ama izatearen lan bikain eta ezin ederragoa.

Hemendik aurrera emakumea honela epaituko da:

Eva bezala (bekataria, seduzitzailea eta intsumisoa) edo Maria bezala (xaloa, zuhurra eta otzana).

GREZIA




- **Jaiotzen zenetik hil arte, emakume greziarra gizonen kontrol pean bizi zen.**
- Bere aitak, anaiek eta baita bere semeek ere bere bizitza alda zezaketen erabakiak har zitzaketen.
- Ez ziren hiritarrak, eta beraz, ezin zuten bozkatu eta ezta lan publikorik izan, heredatu edo jabegorik izan...
- Etxe barruan egiten zuten bizitza, bakarrik erlijio betebeharrak betetzera irteten ziren.
- Ez ziren otoruntzetara ez antzerkirik ikustera joaten.



HEZKUNTZA

- Neskak ez ziren eskolara joaten.
- Emazte ona izan eta umeak hazteko prestatzen ziren, eta beraz, beraien hezkuntza iruten eta ehuntzen ikastera eta musika eta dantza pixka bat ikastera murrizten zen.

- Emakumeengan estimatzen ziren ezaugarriak isiltasuna, sumisioa eta gizonezkoen plazerei uko egitea ziren.
- Birtute horiek irakasten zizkieten amek eta amonek.



GARAIKO PENTSAMENDUAK

“Emakume baten apaingarri onena isiltasuna eta apaltasuna dira”


- **Euripides** (poeta, K.a. 480)

“Emakumea behe mailako gizona dela esan daiteke”

- **Aristoteles** (filosofoa, K.a. 384)

Demostenes:

“Kortesanak ditugu plazererako, ohelagunak egunero zaindu gaitzaten, eta emazteak seme-alaba legitimoak eman diezazkiguten eta gure etxearen zaintzaile fidelak izan daitezen”



“Bada printzipio **on** bat ordena, argia eta gizona sortu zuena, eta printzipio **txar** bat, kaosa, iluntasuna eta emakumea sortu zuena”

Pitagoras (filosofoa, K.a. 582-507)

GIZONEZKO GUZTIEK EZ ZUTEN BERDIN PENTSATZEN.

Isomacok bere emazteaz Sokratesi esana:




"Zer jakin zezakeen berak, Sokrates, nirekin eraman nuenean? Oraindik ez zituen 15 urte nire etxera etorri zenean; ordura arte bera zorrotz zainduta bizi izan zen, ahalik eta gutxien ikusi behar zuen, ahalik eta gutxien entzun, eta ahalik eta gutxien galdetu"

GREZIAN NABARMENDU ZIREN EMAKUMEAK

Zituzten muga handiak izanda ere, emakume asko nabarmendu ziren Grezia klasikoan:

- Safo (K.a. VI. mendea). Poeta. Eskola baten sortzailea.
- Mantineako Diotima. Sokrates filosofoaren irakaslea.
- Epiroko Olimpia (IV a.C.). Alexandro Handiaren ama.
- Aspasia de Mileto (s. V a.C.). Erretorikako maistra. Adimen handikoa.
- Artemisa (s. V a.C.). Lider militar ausarta.
- Hiparquia (s. II a.C.). Filosofo ziniko handia.



Aspasia



ERROMA

- Emakume erromatarrak grekoak baino askatasun handiagoa zuen, bain, bigarren mailan egoten jarraitzen du, eta beti egon zen gizonaren menpe (aita edo senarra).
- Emakumea gizon erromatarraren lagun eta laguntzaile bezala ageri da, bere ondoan egoten zen oturuntzetan, berarekin partekatzen du seme-alaba eta morroin eskameenganako autoritatea eta bizitza publikoan bere senarrak duen duintasunaren parte da.
- Ezin du parte hartu politikan, ez parte aktiborik izan bizitza sozialean, ez lan propiorik izan.

HEZKUNTZA

- Neska-mutikoak elkarrekin hazten ziren umetan, oinarrizko eskolak ere mistoak ziren.
- Oinarrizko ikasketak amaituta (irakurketa eta idazketa), familia oneko neskek pribatuan jarraitzen zuten ikasten literatura erromatarra eta grekoa, eta lira jotzen eta dantzatzen eta abesten ikasten zuten.
- Gero, 13 eta 17 urte bitartean, ezkondu egiten ziren.
- Hezkuntzaren ondoren, emakumea etxeko lanei eta emazte eta ama ona izateari lotuta agertzen da Erromako mentalitatean.



Zenbait emakumek kultur maila handia lortu zuten irakasle partikularrei esker.



EMAKUME ESKLABOAK




- Objektu bezala eta eskubide gabeko pertsonatzat jotzen ziren.
- Lan okerrenak izateaz gain –sukaldari, ilepantzaile, neskame edo jostun-, bere jabearen gustua egin behar zuten horren ezkontzaz kanpoko harremanetan.
- Askatasuna lortzeko aukerak oso txikiak ziren gizon esklaboek zutenarekin konparatuz.

ERROMATAR GARAIKO BITXIKERIA

Oppia legea (K.a. 195). Ispilu, beira-ale eta perfumeen erabilera mugatzen zien emakumeei, ez zetorrelako bat paterfamiliasen menpeko “matrona” idealaren irudiarekin.

Gizonezkoen interesengatik eta interesentzako egindako lege horren aurrean emakumeak batu ziren eta Senatuak legea kentzea lortu zuten.

Esan daiteke historian ezagutzen den lehen aldia dela emakumeak gizonezkoen boterearen aurka antolatu zirela.



ERREPUBLIKAREN AMAIERA (K.a. I. mendea) :

GOI GIZARTE-KLASEKO ERROMATAR EMAKUMEAK (zenbait aldaketa agertzen dira)



- Ama eta emazte izaten jarraitu zuen, baina, independentzia handiagoarekin; bere dotea eta ondarea izatea eta erabiltzea lortzen du.
- Askatasun handiagoa du kalera eta leku publikoetara irteteko. Erosketa txikiak egiten ditu.
- Hala ere, ezin du gizonezkoentzat jotako ikasketa edo lanik egin: abokatu, bankari, epaile...

ANTZINATASUN BERANTIARRA:


HIPATYA 375. urtean jaio zen Alexandrian, Egipton.

- Zientzialari eta filosofo handia. Matematiketan, astronomian eta mekanikan nabarmendu zen. Hainbat ikerketa tresna asmatu zituen. Eskola handi bat sortu zuen eta bertan prestatu zituen gerora goi karguetara iritsi eta elkarren etsai izan ziren aristokrata kristau eta paganoak.
- Bere gizonezko homologoen aurrean -horien milioi bat erreferentzia gehiago ditugunabarmendu zen emakumea gutxiestearen adibide onena da. Maila intelektual bera izanda Aristotelesek (K.a. IV. mendea) eta Hipatiak (K.o. IV. Mendea), lehenengoaren bizitza eta lan osoak ezagutzen ditugu; eta bigarrenarenak, berriz, zertzeladak... historia berataz kontzienteki ahaztu zen.
- Bere bizitzaz ondoen ezagutzen dugun datua bere heriotza da. Bere egoera okertzen joan zen, eta kristau egitera ere behartu zuten, baina, berak uko egin zion. Pentsamendu askea izatera eta horren arabera jokatzeko hartutako erabakia mehatxu bat zen.
- Azkenean, interes politikoaren biktima, basatiki hil zuten.



Liburua: "Hipatia, La esfera", Celia Martínez Maza, 2009
Filma: "Agora", Alejandro Amenabarrena.

ERROMATAR INPERIOAREN AMAIERA – ERDI AROAREN HASIERA



Erromatar inperioa amaitua, eta bere botere zentrala desagertuta, “erromatar” probintziak batzeko gelditu zen indar bakarra erlijio kristau/katolikoa izan zen, interes politikoengatik inperioaren erlijio bezala onartua zegoena.

Hainbat herri Europa osoan zehar hainbat mendez boterea lortzeko borrokan aritu ondoren, Erdi Aro betera iristen gara: erreinu kristauak sendotzen doaz eta baita erlijio katolikoa ere.

Emakumeari bakarrik bere familiaz arduratzen lagatzen zaio.



GOI ERDI AROA

BISIGODOAK



Erromatar inperioa erori, eta Iparreko herriek Europa inbaditu zuten: godoek, bisigodoek, frankoek, sueboek, bandaloek eta abar.

Penintsulan 3 mendez egon ziren. Beraien ekarpen nagusia izan zen beraiekin hasi zela sistema feudalerako trantsizioa.

Orduan hasi zen tronua ondorengotzaren bidez eskuratzen, eta beraz, emakume nobleak komenientziaz eta interes politikoengatik ezkontzen zituzten. Ezkontza bidezko politikaren eta emakume nobleek erreinu kristauetan zuten rolaren jatorri garbia.

Gero, musulmanen inbasioak etorriko ziren Europako hegoaldetik.

7 mendez egon ziren penintsulan.

Aurrerapen ugari ekarri zituzten arlo askotan, baina, bat bera ere ez emakumearen aurrerapenarekin lotuta.

Hala ere, betiko moduan, ezagutzea merezi duten emakume asko nabarmendu ziren hainbat jakintzagaietan.

MUSULMANAK



KATOLIZISMOAREN SENDOTZEA ETA BEHE ERDI AROA

- Europa osoan zehar barreiatutako monasterioetan sortu zen lehen erreinu kristauen boterea, eta horiek izan ziren kristau artea (erromanikoa eta gotikoa) eta kristau hezkuntza garatzeko bidea ere. Botere hori Erromatik antolatu zen (Aita Santua bertan zegoen) giltzarri bateratzaile bezala.
- Aita Santuaren elizbarruti egituraren mapa Europako erreinu kristauen maparekin batera sortzen doa, Aita Santua alde izaten saiatu baitziren erreinu horiek, bere eragina eta boterea ezinbestekoak baitziren.
- Aita Santuaren babesa izateagatik, erreinu kristau guztietan erlijio kristaua eta bere oinarri guztiak ezarri ziren, orain katolikoa deituko zena. Jainkoaren izenean kristau ez diren pertsona guztiak jazartzen, menpe hartzen edo hiltzen dira.
- **Katolizismoak emakumeari ematen dion tratua itxuragabea eta iraingarria da.** Goi Erdi Aroan gaude.



EMAKUMEA BEHE ERDI ARO BETEAN



Laburtuz:

-Oinarriak patriarkatuan ditu, gizona da agente “aktiboa” eta emakumea “pasiboa”.

-Gizonak agintzen du bizitza publikoan (politika, armak, negozioak...) eta emakumeak etxeko bizitzan.

-“Lehen gaueko eskubidea” agertzen da, emakume xumeen aurka jotzen duena.

-Emakume aberatsak umeak zaintzen eta etxeko lanak zuzentzen jarduten zuten.

-Emakume txiroek, familiaz arduratzeaz gain, nekazaritzan, arrantzan, merkataritzan eta abarretan aritzen ziren.

-Ezkundu nahi ez zutenak komentuetan sar zitezkeen. Komentura sartzeko beste arrazoi bat izaten zen doterik ez izatea.

-Emakumeari eskatzen zitzaizkion bertuteak: **kastitatea, obedientzia, zuhurtasuna, apaltasuna eta abar.**

EMAKUME NOBLEA da zenbait abantaila dituena.

- Etxeko erdigunea da. Ez zuen lan nekosorik egin behar eta ez zuten goserik igarotzen. Hainbat erosotasun zituzten eta gizonei laguntzen zieten zenbait ikuskizunetara.
- Truke txanpon ziren itun politikoak sinatzeko ezkontza bidez.
- Ezin dute parte hartu politikan.
- Kastitatea eskatzen zitzaaien, eta modu desegokian portatuz gero, zigortzen zituzten.



- Emakume batzuk erregina izatera heldu ziren. Tronura interesengatik iristen ziren, ez zegoelako gizonezko oinordekorik edo oinordekoa umea zelako.
- Erregealdian kalte egin zien emakume izateak. Erregina horietako batzuk honako hauek izan ziren: Urraka gaztelakoa, Lancasterreko Katalina, María de Molina, Nafarroako Blanka...

ERDI AROAN NABARMENDU ZIREN EMAKUMEAK

Asko izan ziren, horietako ezagunenetakoak honakoak dira:



Leonor Akitaniakoa (1120an jaioa) eta Isabel Gaztelakoa (1428): Erdi Aroko kanonak gainditu zituzten emakume eta erreginak bezala.

(Katalina II.a Errusiakoa, Ana Habsburgokoa...)



Joana Arc-ekoa: 1412. Fededuna eta gerra kontuetan jenioa, Frantziaren alde hainbat gudu irabazi ondoren, Frantziako gotzainek “herejatzat” kondenatu zuten eta sutan erre 20 urte bete gabe zituela.

(Katalina Erauso...)



Teresa Jesusena: 1515, Mistikoa eta idazlea. Inkisizioari aurre egin zion emakumeek espiritualtasun propioa eta erakunde kontserbadoreengatik librea izateko zuten eskubidea aldarrikatuz.

(Lady Mary Wortley Montagu, Louise Burgeois...)

ERIZAINZA: Erdi Aroko emakumea benetan nagusi zen arloa

Emakume asko nabarmendu ziren erizaintzan/medikuntzan:

- Lehendabizi, gaixoak eta gaixotasunak etxe giroan edo leku itxietan izaten zirelako (emakumearen menpekoak, Grezia eta Erromako tradizioan eta judeo/kristauan gertatzen zen bezala).
- Bigarrenik, moral erlijiosoak gizonak zenbait medikuntza arlotan aritzea galarazten zuelako, esate baterako, ginekologian eta obstetrizian.

Radegunda (531): frankoen printzesa, erlijioan babestu zen eta ospitala zuen komentua sortu zuen. Mediku zaintzak garatu zituen.

Trotula Salernokoa (1110): bere senarraren laguntzaz medikuntzan hasi zen. Ginekologiaren lehen tratatua idatzi zuen.

Hungariako Santa Isabel: erlijiozale handia, alargun eta aberats gelditu zenean hainbat ospitale eraiki zituen, eta gaixoak zaintzen jardun. XIX. mendean kanonizatu zuten eta erizainen zaindari izendatu.



INKISIZIOA ETA EMAKUMEA

Inkiszioa eliza katolikoaren diziplina onartzen ez zuen edozein talde sozial borrokatzeko sortu zen.

Behin talde “heretiko” nagusienak kontrolatuta, judutarrak, musulmandarrak, ijitoak, kataroak eta abar, **emakumearen aurka egiteari ekin zion.**



Erdi Aroan emakumeentzat izandako gertaera okerrena da:


- Gizonezkoak ere epaitu zituzten, baina, gehienak emakumeak izan ziren, sorginen aurkako tratatuen izaera misoginoarengatik, horietan esaten baitzen emakumea ahulagoa zela eta harrapakin errazagoa Deabruarentzat, hau da Eva-emakume kontzeptua: bekataria, esker txarrekoa, probokatzaileria, intsumisoria...
- Honako hauek leporatzen zitzaizkien: pertsonak edo animaliak hiltzea horiek madarikatuta bakarrik, jaio berriak jatea, hegan egitea, itunak egitea Deabruarekin, ekaitzak sortu eta uztak galtzea, izurria eta beste izurrite batzuk eragitea.
- Benetan gertatzen zena zen emakume horietako asko sendatzaileak, sukaldariak, emaginak, aholkulariak... zirela, eta jendea beraiengana joaten zela bere arazoentzako konponbide bila “Jainkoaren borondatearen” zain egon behar izan gabe, pulpituetatik predikatzen zuten bezala.
- Gainera, horietako emakume askok ez zuten bere herrietako antzinako sinismenak ahaztu. Horrek guztiorrek ekarri zuen Elizak bere interesentzako benetako mehatxu bezala ikustea.

ARO MODERNOA (s. XVI-XVII) eta ARO GARAIKIDEA (XVIII. mende amaieratik gaur arte)

Erdi Aroko mendeetako gehiegikeria eta beldurrez nazkatuta eta Frantziako iraultzak eztanda egin zuenean, Aro Garaikidea izeneko garai hau hasten da.

Aldaketa handiak eta azkarrak gertatzen dira arlo guztietan: politikan, gizartean, zuzenbidean, zientzian, teknikan, artean, arkitektura, filosofian...

Aldaketarik izango da ere emakumearen arloan?



Gertaera asko izan dira, horietako garrantzitsuenetako batzuk, honako hauek:

- 1750: 1. Industria Iraultza.
- 1789: Frantziako Iraultza.
- 1800: Napoleonen Inperioa.
- 1861: Sezesio-gerra Estatu Batuetan.
- 1870: 2. Industria Iraultza.
- s. XX: Errepublikak Espainian.
- s. XX: Mundu gerrak (kapitalismoa, nazismoa, faszismoa, sozialismoa...)
- s. XX: Ameriketako... herrialdeen independentzia (demokraziak...)

Emakumeak horietan guztietan era aktibo batean parte hartu zuela frogatzen duten agiri asko dagoen arren, historiaren kontaketa ez da ia horren aipamenik egiten.

FRANTZIAKO IRAULTZA (1789)

- Feudalismoaren eta absolutismoaren amaiera ekarri zuen, eta politika eta gizarte aukera berriak ireki zituen.
- Frantziako iraultzak aldaketa dakar emakumearen historian. Ordura arte, emakumea familiaren menpe zegoen etxe eremuan, ezin zuen ideia propiorik izan.

- Gizakiaren berdintasun naturalaren eta politikoaren (askatasuna, berdintasuna, senidetasuna) ideia unibertsalean oinarritu zen Frantziako iraultzaren garaipenaren ondoren KONTRAESAN GARBIA sortu zen, emakumeei, biztanleen erdiei, parte hartzea eta ideiak adieraztea ukatzen zizkielako.



- Frantziako iraultzaren programa asmatu eta “Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena” argitaratu zuten frantsez ilustratuek gizona bakarrik izan zuten kontuan. Ez zuten emakumea kontuan izan.
- Soilik ilustratu horietako batek hitz egin zuen argi eta garbi emakumearen alde, gizartean zuen rola onartuz. *Bere garaiko emakumeen egoera soziala esklaboenarekin alderatzen zuen.*

EMAKUME AKTIBISTEN ROLA FRANTZIAKO IRAULTZAN

- Iraultzak aurrera egin ahala, emakume asko hasi ziren sexuen artean eta eskubide zibiletan berdintasuna eskatzen.
- Emakume esanguratsuenetako bat **Olympe de Gouges** izan zen (1748-1793). Antzerkigile eta iraultzako aktibista, emakume-protestako protagonista izan zen.
- Salatu zuen iraultza emakumeez ahaztea bere proiektu berdinazale eta askatzailean, eta gaineratu zuen “emakumea libre jaiotzen dela eta gizonezkoen eskubide berak izan behar dituela” eta “Legea borondate orokorraren adierazpena izan behar dela; eta herritar guztiek, pertsonalki edo beraien ordezkarien bidez, borondate hori osatzen lagundu behar dutela”.
- Olympe de Gougesen programa argia zen: askatasuna, berdintasuna eta eskubide politikoak, bereziki boto eskubidea, emakumeentzat.
- Hala ere, iraultzako buruzagiek ez zuten planteamendu feminista partekatzen, ezta haietako gogorrenek ere. Olympek ez zuen nahi Luis XVI. exekutatu zezaten, eta aitzaki hori erabilita jazarria izan zen eta gilotinaz hil zuten (1793). Robespierrek emakumeen literatura klubak eta elkarteak debekatu zituen urte horretan.
- Borroka hasi arren, emakumeek ez zituzten aldaketa handirik izan beraien ohiko bizi moduan, eta ez zuten gizonekiko menpetasunetik askatzerik lortu.



Si la mujer tiene derecho a subir a la horca, entonces también tiene derecho a subir a la tribuna.

Olympe de Gouges.

Ilustrada feminista, escritora, dramaturga, panfletista y política francesa, autora de la Declaración de los Derechos de la Mujer y de la Ciudadana (1791).

NAPOLEONEN INPERIOA

Frantziako iraultzaren ondoren, Napoleonek bere inperioa ezarri zuen Europa osoan (1799-1815), eta bere konstituzioan, **Napoleonek eskubide zibilak ukatzen dizkie emakumeei eta etxe-girora zokoratzen ditu lege oso baztertzailleekin.**



“Okerra da pentsatzea gizonezkoen berdinak direnik. Egia esan, umeak egiteko makina bat baino zertxobait gehiago dira. Emakumeei askatasun gehiago emanez gero, gizarte osoa aztoratuko litzateke. Gizonezkoaren menpeko izatea da dagokiena”

Napoleon Bonaparte



AEBko SEZESIO-GERRA (1861-1865)

Gerra horretan **emakumeek gizonezkoekin batera borrokatu zuten esklabotasuna ezeztatzeko**, eta aurrerapenak lortu zituzten gizonaren eskubideetan, baina, beste behin ere, ez emakumearenetan.

INDUSTRIA IRAULTZA: emakumeen errealitatea XIX. mendean.

Industria iraultza abiadura bizian, bi gizarte klase berri sortu ziren: burgesia eta langileak.

Emakumearen egoera ez zen hobetu burgesia nagusituta. Aitak edo senarrak jarraitzen zuten bere gaineko kontrola izaten. Askotan aita izan zen senarra aukeratzen ziona. Eta edonola ere, emakumea senarrari leial izan behar zitzaion.



langile klaseko emakumeak, ehundegietan zein mehatzetan lan egiten zutenak, lanaldi luze eta gogorrak jasaten zituzten, gizonezkoek bezala, baina, gutxiago kobratzen zuten lan berarengatik, eta esan beharrik ez dago gero etxeko beharrei aurre egin behar zizkietela. **Sortua zen soldata ezberdintasuna eta lanaldi bikoitza emakumeentzat.**

Mundu osoan zehar sortu ziren gizarte eta politika mugimendu ugarietatik batzuk jarri zuten justizia ezaren aurkako borrokaren fokua gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunean. **Kontzientzia feminista sortu zen.**

KONTZIENTZIA FEMINISTA SORTZEKO XIX. MENDEAN ERAGINA

IZAN ZUTEN EMAKUMEAK

(izan ziren guztietatik lagin oso txiki bat)

Susan B. Anthony



SEZESIO-GERRAren (1861-1865) ondoren, abolizionismoaren alde borrokatu zuten emakumeek desilusio handia jasan zuten. Nahiz eta esklabotasuna ezeztatzearen aldeko ziren federalek irabazi, konstituzioari egindako zuzenketek boto eskubidea eman zieten askatutako esklabo beltzei, baina, eskubide hori ukatu emakumeei.

Erantzuna berehalakoa izan zen: **Elisabeth Candy Stanton-ek** (1815-1902) eta **Susan B. Anthony-k** (1820-1906), emakumearen sufragioaren aldeko Elkarte Nazionala sortu zuten **1869an**, alderdi politikoetatik eta langileen mugimenduetatik independentea.

Elisabeth Candy Stanton



Gure konstituzioa honako hitzekin hasten da: “gu, herria”, eta bakarrik gizonek bozka dezakete, “herria” esaten dugunean, ez gara ari gizonez zein emakumez?

Elisabeth Candy Stanton.

Mary Wollstonecraft, Britainia Handiko lehen feminismoaren bultzatzailea. Ingalaterra. Bere garaiko emakumeen eskubideei buruz idatzi zuen. Erregeen absolutismoaren aurkakoa, sistema politiko horren eta sexu bien arteko botere harremanen arteko lotura salatu zuen, sistema horretan gizonak emakumeekiko tirania absolutista erabili zezaketelako etxe eta familia giroan.



XIX. mendeko bi espainiar aitzindari handi **Concepción Arenal eta Emilia Pardo Bazán** izan ziren.

Lehenengoak nabarmentzen zuen ama eta emazte rola oinarritzkoak direla emakumeen bizitzan, baina, emakumeen bizitza ezin zela bakarrik rol horietan zentratu.

Bigarrenak salatzen zuen aurrerapen politikoak (askatasun politikoak, sistema parlamentarioak...) sexu bien arteko distantzia areagotu zutela, emakumeen askatasuna bat ere sustatu gabe.



Concepción Arenal



Emilia Pardo Bazán

Flora Tristan: (Frantzia, 1803) izan zituen esperientzia latzek langileen eta emakumeen eskubideen defendatzaile bihurtu zuten.



Clara Zetkin: (Alemania, 1857)
Emakumeen Nazioarteko Egunaren sustatzailea.

Rosa Luxemburgo: (Polonia, 1871). Jatorri judutarrekoa, sozialismotik langileen eskubideen alde eta emakumea dagokion lekuan jartzearen alde borrokatu zuen.



XX. MENDERA IRISTEN GARA

1. OLATU FEMINISTA: XVIII. mendetik sortutako kontzientzia feministaren ondorioz mende honen hasieran eman ziren mugimendu eta aldarrikapen feministak.

XIX. mende amaieran oraindik ere ustezko gutxiagotasun genetikoarengatik justifikatzen zen emakumearen menpekotasuna. Emakumearen esparrua etxea da eta bere funtzioa, ugalketa; izaki pasiboa, behe mailakoa eta osatu gabea izaki aktibo eta inteligentea zen gizonaren aldean. Iritzi zabal hori ez zen bakarrik kontserbadoreena, alderdi aurrerakoiekin lotutako intelektual askok ere antzera pentsatzen zuten.

Historiako momentu horretan emakume asko izan ziren mundu osoan (ezinezkoa da denak aipatzea) mugimendu feministak gidatu eta horietan eragina izan zutenak.

Mugimendu horien helburu nagusiak honako hauek izan ziren:

- Bozkatzeko eskubidea emakumeentzat.
- Emakumeek hezkuntza jasotzea.
- Lan merkatura sarbidea izatea.

Mugimendu guzti horiei
1. olatu feminista deitzen zaie.



EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ALDE IZAN ZIREN GERTAERAK XX. MENDE HASIERAN

New York (1911): alkandora fabriketan izandako aldarrikapen handiak hasi zirenetik bi urte igarota, horietako batean (Triángle Shirtwist) sutea izan zen. New Yorken hildako gehien eragin zituen industria hondamendia, eta AEBn laugarrena.

Suak 123 emakume langileen heriotza eragin zuen, horietako gehienak 14 eta 23 urte bitartekoak, ezin izan zutenak lantegitik irten arduradunek atearak itxi zituztelako jendeak salgaiak harrapa ez ziezazkien.

Triangle Shirtwist jantzi-fabrikari izandako hondamendia lan arloko segurtasun eta osasun arau eta legeetan aldaketa garrantzitsuak egitea eta lan baldintzak hobetzea ekarri zuen ezinbestean.



AEB (1909): Lehenengo lan greba feminista arrakastatsua Amerikako historian. **Alkandora-egileen greba**. Mugimendu sindikala. Emakumeen parte hartze portzentaje handia. Alkandora fabriketan lan egiten zuten emakumeek gidatu zuten greba. Jatorri europarreko eta judutarreko emakumeak. **Aldarrikapena: lan baldintza hobeak, soldata hobeak eta lanaldia murriztea.**





Sufragisten manifestazioa New Yorken, 1912



Sufragisten egoitza nagusia Clevelanden, 1913.



20.000 emakumeen martxa New Yorken 1915eko urriaren 23an.

ERRUSIA (1917): Gerran hildako bi milioi soldadu errusiarren aurrean, Errusiako emakumeek otsailaren azken igandea aukeratu zuten greba egiteko “bakea eta ogia” eske. Agintari politikoek mota guztietako gezur beltzak jaurti zituzten beraien aurka. Denbora gutxira tsarrak erregetza utzi behar izan zuen, eta Errusiako Iraultza hasi zen. **Behin-behineko gobernuak boto eskubidea eman zien emakumeei.**



Errusiako emakumeen martxa “ogia eta bakea” eskatzeko,
San Petersburgon 1917ko martxoaren 8an

LONDRESEN (1914): polizia
Pankhurst buruzagi feminista
atxilotzen Buckingham
jauregiaren kanpoaldean. Jorge
V.a erregeari lege eskaera bat
aurkezten saiatu zen.



Sufragisten manifestazioa **PARISEN (1935)**.

XX. MENDEA. MUGIMENDU FEMINISTA UGARIK MUNDU OSOAN ALDARRIKATUTAKO EMAKUMEENTZAKO SUFRAGIO UNIBERTSALA.

Sexuagatik edo egoera sozialagatik inolako bereizkeriarik gabe bozkatu ahal izateko eta bozketaz hautatzeko karguetara aurkezteko ahal izateko eskubide politiko eta konstituzionala da sufragio unibertsala.

HERRIALDEA	EMAKUMEEK BOZKATZEKO ESKUBIDEA LORTUTAKO URTEA
Finlandia	1906
Norvegia	1913
Danimarka	1915
Islandia	1915
Austria	1918
Irlanda	1918
Alemania	1919
Luxemburgo	1919
Herbehereak	1919
Kanada	1920
Estatu Batuak	1920
Suedia	1921
Erresuma Batua	1928
Espainia	1931
Frantzia	1944
Italia	1945

Ez zen erraza izan emakumeek boto eskubidea lortzea. Borroka, eztabaida sutsu, kartzelaratze eta abar ugariren ondoren, herrialdeek poliki-poliki joan ziren eskubide hori onartzen. Hasiera batean, zenbait herrialdeetan adin bateko emakumeentzat izan zen soilik, beste batzuetan, emakume zurientzat...

Azkenik, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak emakumeen boto eskubidea onartu zuen 1948an, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zuenean.

EMAKUMEENTZAKO BOTO ESKUBIDEA ESTATU ESPAINARREAN. 1931

2. Errepublika espainiarrak berrikusi zituen emakumeak baztertzen zituzten legeak eta emakumeentzako boto eskubidea onartu. Hala ere, bidea nahiko zaila eta paradoxikoa izan zen.

Iritzi nagusia zen ezker zein eskuineko alderdien artean, emakume gehienak, eliza katolikoaren eragin indartsu pean oso atzerakoiak zirela, eta hauteskundeetan parte hartuz gero, dudarik gabe eskuineko alderdiak indartuko zituela. Horregatik, feminista garrantzitsu batzuk uste zuten emakumeak ez zeudela prest boto eskubidea izateko, esaterako, Margarita Nelkenek eta Victoria Kentek (Errepublikako gorte konstituziogileetan diputatuak).



La "sufragista española"

Clara Campoamor (1888-1972): diputatua eta alderdi erradikaleko kidea. Sutsuki defendatu zuen emakumeen boto eskubidea. Bere alderdikideen aurka argudiatu zuen printzipio demokratikoek norbanakoen eskubideak bermatu behar zituztela, eta horrek gizonezkoak eta emakumezkoak berdin tratatzea eskatzen zuela.

Azkenean sufragisten tesiak nagusitu ziren: 161 boto alde eta 121 aurka. Errepublikako konstituzioak, gainera, familiarekin zerikusia zuen guztiari buruzko legeak egin zituen askatasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik: ezkonkideen berdintasunean oinarritutako ezkontza, dibortziatzeko eskubidea, gurasoen betebeharrak umeekiko

Emakumeen irudiak boto eskubidea erabiltzen eta hauteskundeetan parte hartzen.



Eibar (1933): emakumeak autonomia erreferendum batean.



Beste une bat, leku ezezagun batean.

GUERRA ZIBILA ETA EMAKUMEAK ERBESTEAN.

Emakumeek ere parte hartu zuten demokratikoki ezarritako errepublikaren eta bere baloreen aurka 1936ko uztailaren 18an frankistek antolatu zuten “altxamendu nazional loriatsuaren” aurka.

Asko bortizki hil zituzten, beste batzuk iraingarri zigortu, eta beste batzuk erbesteratu behar izan zuten.

Horietako batzuk honako hauek dira:



Dolores Ibarruri, “La pasionaria” (1895-1989) politikaria,



Federica Montseny (1905-1994) Ministroa II. Errepublikan



Maria Zambrano (1904-1991) Filosofoa eta entsaiugilea



Mª Teresa Leon (1903-1988) Idazlea

Clara Campoamor: Suitzara joan zen, eta bertan hil erbestean 1972an

ESPAINIAKO DIKTADURA (1939-1975)

- Errepublika garaian lortutako zenbait eskubide bertan behera gelditzen dira.
- Emakumeen estereotipoa indartzen da: emakume onak senarra, umeak eta nagusiak zaintzeaz arduratu behar dira.
- Etxetik kanpo “onartutako” lanak irakasle eta erizainarenak dira.



Diktaduraren garaian emakumeei ematen zitzaizkien aholkuak:

8 Hazlo sentir en el paraíso

Durante los meses más fríos del año debes preparar la chimenea antes de su llegada. Tu marido sentirá que ha llegado a un paraíso de descanso y orden, esto te levantará el ánimo a ti también.

Después de todo, cuidar de su comodidad te brindará una enorme satisfacción personal.



5 Se dulce e interesante

Su aburrido día de trabajo quizá necesite mejorar. Tú debes hacer todo lo posible por hacerlo.

Una de tus obligaciones es distraerlo.



Arregla tu casa cuatro

Debe lucir impecable

Haz una última ronda por las principales áreas de la casa, justo antes de que tu marido llegue. Levanta libros de escuela, juguetes, etc. Y limpia con un plumero los muebles.



9 Escúchalo

Puede que tengas una docena de cosas importantes que decirle, pero a su llegada no es el mejor momento para hablarlas.

Déjalo hablar antes, recuerda que sus temas son más importantes que los tuyos.



Hazlo sentir a sus anchas **Extra!**

Deja que se acomode en un sillón o se sienta en la habitación.

Ten una bebida caliente lista para él. Arregla su almohada y ofrécele quitarle sus zapatos.

Habla con voz suave y placentera



3 Procura verte feliz

Regálale una gran sonrisa y muestra sinceridad en tu deseo de complacerlo.

Tu felicidad es la recompensa por su esfuerzo diario.



7 Minimiza el ruido

A la hora de su llegada apaga lavadora, secadora y aspiradora e intenta que los niños estén callados.

Piensa en todo el ruido que él ha tenido que soportar durante su pesado día de oficina.



10 Ponte en sus zapatos

No te quejes si llega tarde, si va a divertirse sin ti o si no llega en toda la noche. Trata de entender su mundo de compromisos.

Trata de entender su mundo de presión y compromisos, y su verdadera necesidad de estar relajado en casa.



11 No te quejes!

No lo satures con problemas insignificantes.

Cualquier problema tuyo es un pequeño detalle comparado con lo que él tuvo que pasar.



Una buena esposa siempre sabe cual es su lugar.



1 Ten lista la cena

Planea con tiempo una deliciosa cena para su llegada.

Esta es una forma de dejarle saber que has estado pensando en él y que te preocupas por sus necesidades. La mayoría de los hombres están hambrientos cuando llegan a casa.

Prepara su plato favorito.



6 Prepara a los niños

Cepíllales el cabello, lava sus manos y cámbiales la ropa en caso de ser necesario. Son sus pequeños tesoros, y él los quedará ser reticentes.

¡Omita los minutos para esperar a los niños!



Guía de la buena esposa

11 reglas para mantener a tu marido feliz

Se lo esposa que él siempre sonó.



8 Hazlo sentir en el paraíso

Durante los meses más fríos del año debes preparar la chimenea antes de su llegada. Tu marido sentirá que ha llegado a un paraíso de descanso y orden, esto te levantará el ánimo a ti también.

Después de todo, cuidar de su comodidad te brindará una enorme satisfacción personal.



5 Se dulce e interesante

Su aburrido día de trabajo quizá necesite mejorar. Tú debes hacer todo lo posible por hacerlo.

Una de tus obligaciones es distraerlo.



2. OLATU FEMINISTA:

1960tik XX. mendeko 90eko hamarkadara arte

Oro har, 1. olatuko mugimendu feministen aldarrikapenak lortuta (boto eskubidea, hezkuntzarakoa eta lan merkaturako sarbidea), 60eko hamarkadan aldarrikapen feminista berriztatuak agertzen dira.

Garai horretako aldarrikapenak honako hauek izan ziren:

- Sexualitatea: norberaren gorputzaz agintzeko eta gozatzeko eskubidea.
- Ezberdintasun ez-ofiziala.
- Familia: etxeko eta familiako erantzukizunak eta lanak partekatzeko eskubidea.
- Ugalketarako eskubideak: emakume “ona” izateko umeak izan behar ditut?
zenbat ume izan erabaki dezaket?
familia-plangintza.

Ekintza feminista ugariko urteak izan ziren mundu osoan, eta aurrerapen handia lortu zen emakumeen eskubideen eta askatasunetarako.

1953: SIMONE DE BEAUVOIRrek “bigarren sexua” argitaratu zuen, eta bertan argi eta garbi azaltzen du emakumea sozialki eraiki den kultur produktu bat dela.

Emakumeek dituzten ezaugarri asko ez dira genetikoak, baizik eta heziketa eta sozializazio moduek emandakoak. Horrela, ba, emakumearen lan nagusia bere identitate zehatza bere irizpide propioetatik berreskuratzea da. Teoria hori laburbiltzen duen esaldia oso ezaguna da:

“Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da”.





1960: mundu osoan ugaritu ziren ikuspuntu oso ezberdineko mugimendu feministak (katolikoak, erradikalak, kontserbadoreak, liberalak, sozialistak...). Baina guztiak asmo argi berarekin: pertsona bezala garatzeko benetako aukerak ukatzerakoan emakumeek zer sentitzen duten jakinaraztea beraien herrialdeetako agintariei.



1963: Kennedy-k bere politikako gai nagusitzat hartu zituen emakumeen eskubideak, eta estrategiak diseinatu zituen berdintasuna lortzeko: amatasun bajak, umeen zaintza eta lanetik kaleratzeko legeetan aldaketak egitea.





1969: Coretta Scott, emakume beltzen eskubide zibilen aldeko mugimenduaren gidaritza hartu zuen Martin Luther King bere senarra hil ondoren.

1960: pilula antikonzeptiboak onartu ziren.

1965: emakumeen sexu askatasun eskubideari buruz hezitzen eta legeak egiten hasi ziren.

1975: abortuaren aldeko legeak onartu ziren.



“Ez dut uste inork pertsona talde baten askatasuna nahi izan, eta beste talde bati ukatuko dionik”

Coretta Scott



1980: Lanbide emakume belaunaldi berri bat agertu zen: abokatu, exekutibo, mediku, politikari....



1990: mundu osoan zehar zuzenketak egiten zaizkie konstituzioei ezberdintasuna gainditzeko. Hala ere, mugimendu feministen eta beraien aldarrikapenen moteltze bat hasten da.

3. OLATU FEMINISTA: 1990etik gaur arte

- 2. olatuko borroka feministak zerbait garbi utzi zuen:

Ez dago emakume eredu bakarra,
baizik eta hainbat emakume eredu daude,
gizarte, etnia, nazionalitate edo erlijio kontuek eraginda.

- Hainbat emakume eredu izatearen kontzientzia berri horrek hainbat ikuspuntu, konponbide eta proposamen agertzea ekarri du.
- Emakumea eta sexuari, ekologismoari, familiari, hirigintzari, erlijioari, lanari eta abarri buruzko eztabaida sutsuak agertzen dira.
- Baina, ikuspuntu feministak markatuko dituen, eta markatzen ari den, kontzeptua **GENEROA** da.

GENEROA

•Generoa eta sexua ez dira gauza bera:

Sexua: ezaugarri biologikoa (arra/emea). Ezberdintasun fisikoak. Ez dira aldatzen denborarekin.

Generoa: gizarte eta kultur eraketa, rolak eta ezaugarriak ematen dizkiona sexu bakoitzari. Ezberdintasun sozialak. Denborarekin aldatzen dira, eta beraz, aldagarriak dira.

Sexua= horrela jaiotzen da= DA

Genero= egiten zaituzte= IZAN BEHAR DA

Mendebaldeko kulturaren:

- Bizitza pribatura eta ugalketari lotutako rolak emakumeari izendatu zaizkio historikoki: etxeko lana, seme-alabak hezi eta zaintzea eta familia arteko harremanak.
- Publikoari eta produkzioari lotutako rolak gizonari izendatu zaizkio: familiaren zein komunitatearen sostengurako ondasunak, zerbitzuak eta baliabideak lantzea, komertzializatzea eta kudeatzea.

Genero rolek portaerak, lanak eta erantzukizunak izendatzen dituzte, eta horiek, itxaropenak edota gizarte eskakizun subjektiboak sortzen dituzte.



- **Gizarteak genero ezberdintasun hori markatzerakoan, generoen arteko harremana ere markatzen du: botere eta mendekotasun harremana, nagusiki genero maskulinoarena genero femeninoarekikoa.**

GIZONA

Indarra
Adorea
Agresibitatea
Autoritatea
Ekimena
Aisialdia
Plazerra
Independentzia
Autonomia
Beretzat izatea



EMAKUMEA

Ahultasuna
Lotsa
Gozotasuna
Esanekoa
Pasibitatea
Sakrifizioa,
etsipena
Bere buruari uko
egitea
Menpekotasuna
Besteentzat izatea



Sinestezina da nola, patriarkatua ezarri ondoren, gizonaren rolak (indartsuena da, ekimena duena eta menperatzailea) eremu publikoan eraginez, eta emakumearen rolak (ahula, bere buruari uko egiten diona eta esanekoa) etxeko eramuan eraginez, historian zehar iraun duten gaur egunera arte.

Nahiz eta emakumea eremu publikora sartu (unibertsitatea, lana, politika, kultura eta abar) eta berdintasunaren aldeko legeak egin, emakumeak baztertuta eta kaltetuta jarraitzen du. Izan ere, **arazoa da sistema patriarkalak bizirik jarraitzen duela gure pentsakeran eta jokaeran**, emakumearen ugalketarekin lotutako guztia kontrolatu nahian jarraitzen duela, emakumea etxeko eremura zokoratzen eta eremu publikoan bere burua garatzea galarazten.

Egungo emakumeari subliminalki eskatzen zaiona, eta praktikan dena, honako hau da:

“Sexualki erakargarria izan dadila, bere bizitza gizonaren inguruan antolatzea, ama izatea eta bere bizitzako ardatza bere seme-alabak izatea, beretzako oso denbora gutxi izatea onartzea, maila bereko gizon batek baino kualifikazio txikiagoko eta gutxiago ordaindutako lana izatearekin konformatzea, etxeko lan gehienak bere kontu izaten, gurasoak zaintzeaz arduratzea, onartzea lanean okerrago ikusita egongo dela usteko dutelako bere lanaldiko zati bat bere familiari eskainiko diola, zuzendaritza postuetara irits badaiteke “kristalezko sabaiarekin” egingo du topo eta goi mailetara iristetik gertu geldituko da, “normaltzat” jotzea jasan beharko dituen sexu jazarpen maila ezberdinak, bere sexualitateari ez zaiola behar bezala erantzungo eta gizonezkoaren desioen ingurukoa izatea onartzea, eta abar eta abar” (gai horietan sakontzea eta horiek zabaltzea da azaroaren 25ean ospatzen den Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren helburua).

Garbi dago modu horretara bizita, non “gonbidatzen” zaituzten zure bizitza besteen inguruan antolatzera (jasotzen denaren baino gehiago eman ez) eta zure helburu eta nahiak ahal denerako uztera, neke, segurtasun falta eta frustrazio sentimenduak agertzen direla.



- Genero ezberdintasunaren aurkako borrokak, **borroka feministak, injustizia hori agerian jarri eta borrokatzen du**, eta pertsona guztiek euren garapenerako aukera berdinak izatean oinarritutako harreman egitura berriak sortzea proposatzen du.
- Ez dago lotura erabakigarrikerik sexuaren eta lan bat egiteko gaitasunaren artean.
Emakume bat astronauta, biolin-jole, autobus-gidari, mehatzari, lehendakari... edo ileapantzailea izan daiteke, baina, berak ezagutzea dauzka bere gaitasunak eta gustuak, eta berak erabaki berak horrela nahi duelako eta ez, gizarteak manipulaturik; gizonak bezala.

Genero ezberdintasunak norbanakoari eragiten dion presioa larria da, bakoitza, gizon edo emakume izan, beregandik espero dena egitera daramalako, eta bestela, guztion kritika eta arbuioa jasotzera arriskatzen da.

Genero ezberdintasun horretan biktima gara emakumeok zein gizonezkook. Baina, argi eta garbi dago batez ere emakumeak direla.

=Nahiz eta indartsu sentitu, ahul jokatzeaz nekatuta dagoen emakume bakoitzeko, ahul sentitzen denean indartsu itxurak egiteaz nekatuta dagoen gizon bat dago.

=Tuntun bezala jokatzeaz nekatuta dagoen emakume bakoitzeko, beti “denetik jakin” beharraz larri dabilen gizon bat dago.

=“Emozional” bezala kalifikatuta egoteaz nekatuta dagoen emakume bakoitzeko, negar egiteko eta sentibera izateko eskubidea ukatu zaion gizon bat dago.

=Emakumetik gutxi izateagatik sailkatutako emakume bakoitzeko, gizon bat dago gizon dela erakusteko modu bakarra lehia duena.

=Bere seme-alabekiko “lotuta” sentitzen den emakume bakoitzeko, aitatasunaz gozatzea ukatu zaion gizon bat dago.

=Lan bat lortzerik izan ez duen emakume bakoitzeko, beste pertsona baten erantzukizun ekonomikoa bere gain hartu behar duen gizon bat dago.

=Bere askatasunaren alde urrats bat ematen duen emakume bakoitzeko, bere askatasunerako bidea pixka bat errazagoa egin dela aurkitzen duen gizon bat dago.

Genero ezberdintasun horretan, gizona ere askotan da kaltetua.



ZERGATIK DA GARRANTZITSUA GENEROAZ HITZ EGITEA?

Gizarteak nola bereizten dituen gizonak eta emakumeak... ikusten laguntzen digulako

Gure arteko harremanak nola egiten ditugun ulertzen laguntzen digulako

Gizonei eta emakumeei nola eragiten digun konturatzea ahalbideratzen digulako

Zer aldatu, zer indartu... erabakitzeko balio digulako

ZERGATIK OSPATZEN DA EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA EDO EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA?

- Mundu mailan emakumearen arazoei buruzko kontzientzia hartzearen ondorioz, 1975ean Nazio Batuetako Erakundeak (NBE) Emakumearen Nazioarteko Eguntzat izendatu zuen martxoaren 8a.
- Egun horretan ospatzen da emakumearen borroka historikoa gizonarekiko berdintasunaren eta gizartearen berdintasunaren alde eta pertsona bezala bere osotasunean garatzearen alde.
- Martxoaren 8an ospatzen da, martxoan izan zirelako borroka feministaren gertaera asko (greba handiak, sute ospetsua, mundu mailako lehenengo manifestazio handiak eta abar).
- Generoen artean dauden ezberdintasun injustuak gogoratzen diren eguna da. Eta ezberdintasun horiek dirauten bitartean ez da izango gizarte justurik eta ezta gizarte zoriontsurik ere.
- Helburu da eskubide eta aukera berdintasunarekin bakoitzak bere onena ematea izango duen mundua elkarrekin sortzea.

Zergatik irudikatzen du kolore moreak emakumeen berdintasunaren aldeko borroka?

Esaten da hori zela 1911n New Yorken erre zen fabrikako emakumeek josten ari ziren alkandoren kolorea. Sute horretan 123 emakume hil ziren erreta, eta horren ondorioz, aurrerapen handiak lortu ziren lan arloan emakumeentzako. Egun hori emakumeen borrokako gertaera historikotzat gelditu da.

Uste duzu badagoela arrazoirik egun hori ospatzen jarraitzeko?

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA ATERATAKO ALDARRIKAPEN KARTELA (EMAKUNDE)



Ordu asko
beharrean, etxeko lanetan, zaintza-lanetan...

MARTXOA 8

eta denbora gutxi
gizarte eta kultur jarduetarako, alsialdirako...

Zentzuz eta berdintasunez banatu
dezagun gure buruarentzat, laguntzat,
famiarentzat eta lanerako dugun denbora.

MARTXOAREN 8a.
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA

EMAKUNDE
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
2017-18

gizarteak behar dituelako **Emakumeak aurrera**

Udaletan, aldundietan, gobernuetan
unibertsitateetan, sindikatuetan,
enpresetan...

Euskadiko enpresa, instituzio eta
erakundeetako goi-kargudun gehienak
gizonezkoak dira.


**Arlo guztiak,
emakume guztiak**



MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

EMAKUNDE
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
2017-18

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA ATERATAKO ALDARRIKAPEN KARTEL (EMAKUNDE)



GARBI IZAN BEHARREKO KONTZEPTUAK

MATXISMOA:



Emakumeak gizonezkoak baino gutxiago direla sinestea da

HEMBRISMOA:



Gizonezkoak emakumeak baino gutxiago direla sinestea da

FEMINISMOA:



Genero berdintasunaren garrantzian sinestea eta genero hierarkia ideia gizarteak sortutako kontzeptu bezala baliogabetzea da

PATRIARKATUA: Gizonaren nagusitasuna eta autoritatea gizartean.

MATRIARKATUA: Emakumearen nagusitasuna eta autoritatea gizartean. **Ez da ezagutzen gizarterik matriarkatua gaur egungo patriarkatuaren mailara eraman duenik.** Egon dira eta badira komunitateak ama, modu batera edo bestera, gizartearen buru dena, eta matriarkatutzat jotzen dira.

HISTORIAN ZEHAR IKUSI DA:

- Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren jatorria ez da “naturala”, ezta “jainkotiarra” ere; jatorria “kulturala” da.
- Sexuaren arabera “lan banaketa” eta gizonaren eta emakumearen arteko “harremanaren desberdintasuna” Neolitoko iraultzan garatu zen, eta erlijioak lagundu egin zuen.
- Gizon guztiak ez dira berdinak. Asko ez dira ados egon emakumeari eman zitzaion bidegabeko tratuarekin. Askok erraztu egin dute emakume batzuk esparru publikotik haratago garatu ahal izatea.
- Emakume asko gailendu egin dira maila intelektualean. Ezezagunak dira historialariek gutxietsi egin zituztelako. Hipatya da horren adibiderik garbiena.
- Gizartearen aurrerapenak ez zekarren aurrerapenik emakumearen egoeran, kontzientzia faltagatik eta botere menperatzailearen interesagatik.
- Ikusi da emakume batzuk bizitza ez oso “femeninoa” eramatea erabaki zutela: ama ez izatea erabakiz, soldadu gisa borrokatuz, bidai arriskutsuak eginez, etab.
- Emakumeak aukera izan duenean, ezagutza sortu du (adibide bat: erizaintza)
- Aldarrikapen unibertsal garrantzitsuetan emakumeak gizonarekin batera borrokatu zuen; eta beti izan da gutxietsia eta baztertua.
- Emakumeentzako sufragioa, hezkuntzara eta lanera sarbidea izatea XX.mendean finkatu ziren; mende guzti hauetan bizi izandako desberdintasun ikaragarriaren sintoma argia da hau.

Eta zer da sexismoa?


Sexismoa: sexu jakin bateko pertsonak gutxiagotasun, menpekotasun eta esplotazio egoeran mantentzeko, gizartean oro har erabiltzen den praktika edo jokaera bakoitza.

Ez da ahaztu behar sexismoaren biktimak direla gizonak, emakumeak, transexualak, etab.; gehien ikusten dena emakumeen aurkako sexismoa da.

Maila indibidualean, emakumearen aurkako praktika sexistak, praktika matxistak dira.

Maila sozialean, emakumea gutxiagotasun eta menpekotasun egoeran mantentzen duten ohiko praktiken adibide ezagunenak dira:

Sexismoa publizitatean, jostailuetan, filmetan eta hizkuntzan.



GENERO DESBERDINTASUNETIK ERATORRITAKO ARAZOAK:

Hona hemen genero desberdintasunak sortzen dituen arazoen zerrenda txiki bat, emakumeek jasaten eta sufritzen dituzten arazoak oinarri hartuta. Zerrendan adierazi dira desberdintasun hori desagertzeko aurre egin beharreko oinarrizko arazoak.

Mundu mailan, (ez da ahaztu behar mundu guztian milioika emakume genero desberdintasunagatik sufritzen ari direla): NBEk onartu zuen giza eskubideen lehen urraketa genero indarkeriagatik ematen dela eta mundu mailan zabaldua dagoela. Ondorioztatu zuen arazo hau ezabatzeko genero desberdintasuna ezabatu beharra dagoela; horretarako, NBE-Emakumeak sortu zuen 2010ean.

Maila sozialean, kirolean, politikan, ekonomian, finantzetan, zientzian, etab.: aukera desberdintasuna, balorazio desberdina erronka berdinen aurrean.

Komunikabideetan: genero berdintasunaren aldeko albisteen zabalkunde negargarria, sexismoa publizitatean eta emakumearen rol klasikoaren sustapena.

Lanean: lan baldintza okerragoak, soldata txikiagoak, ardura postu gutxiago, eta are gutxiago, erabaki postuetan.

Kulturan: sexismoa hizkuntzan, ipuinetan, abestietan, filmetan,...


Jaietan: eraso sexistak

Sexuan: norbere sexualitatearekiko ezagutza falta eta asebetetze maskulinora zuzendutako sexualitatearen kultura

Maitasunean: maitasun erromantikoaren finkapena eta banaketan kultura okerra

Etxean: desberdintasuna etxeko lanen banaketan eta genero indarkeria (indarkeria fisikoa edo psikologikoa, heriotza eragin dezakeena).

Genero indarkeria da desberdintasunaren adierazpenik krudelena. 1999an NBEk Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna izendatu zuen, azaroaren 25a, arazo larri honi buruz sensibilizatzeko.



GOGOETARAKO IRUDIAK



Zer iruditzen zaizu txiste hori?
Ezinezko ametsa da?
Justua da?

ONDORIOAK

Gaur egungo gizartean ditugun arazoetako askoren jatorri dira

- Gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako dagoen genero ezberdintasuna.
- Eta beraien artean ezarrita dagoen harreman mota.

Generoarekin lotutako guztiaren EZAGUTZATIK egin behar zaie aurre, eta baita HEZKUNTZA maila guztietatik ere, horrela politika eta portaera askoz ere berdintasunezkoagoak eskatuko direlako.

Helburua gizarte justuago eta berdintasunezkoagoa lortzen joatea da, aukera, betebeharrak eta eskubide berekin guztientzat. Gizarte duinago bat.



WEBGRAFIA

la informazio guztia internetetik jasota dago. Hainbat eta hainbat webgune kontsultatu ditut. Informazio asko dago. Askotan azalekoa, beste batzuetan kontrajarria, eta beste batzuetan, zaborra, eta kutsatzailea (eta bitxia bada, informatu egiten du).

Irakurlea egungo emakumeen arazoen ezagutzan hasteko edo sakontzeko hemen jarriko ditut zenbait helbide os interesgarri.

Saiatu naiz wikipediarik ez jartzen, lehen aldia baita edozeinen esku egon behar dela. Erreferentziaren bat egin baldin badut zerbait zehatza, beste orrialde batzuetan aurkitzeko zaila delako da.

Gehienak unibertsitate lanak dira edo aldizkari espezializatuetoakoak dira. Lan osoak eta oso ondo dokumentatuak dira. Horietako bakoitzak bibliografia handia eskaintzen du.

Beraz, informazioa hor dago, bakarrik jakinmina izan behar da irakurri eta pentsatzeko. Zuk zer iritzi duzu patriarkatuaz? Matxismoaz? Generoaz? Feminismoaz?

HISTORIAURREA.

- Google: "Arqueología de género: Las mujeres en la Prehistoria." (Arqueoblog.com)_
- Google: "La imagen de la mujer en la Historia y Protohistoria" (dialnet.unirioja.es/descarga/articulo)
- Google: "Aletheia: El papel de la mujer en la prehistoria". (Marilo Rivera)
- google: muyinteresante.es/ciencia/artículo/desmon-morris.
- http://www.temporamagazine.com/la-imagen-de-la-mujer-prehistorica-en-los-medios-divulgativos/

EMAKUMEA ETA TRADIZIO JUDEOKRISTAUA.

- https://es.wikipedia.org/wiki/Patriarcado#El_descubrimiento_de_la_paternidad
- google:" Las Raíces del machismo en la Ideología Judeo Cristiana"
- google: "El lugar de las mujeres en el cristianismo". (personales.unican.es/marcosm/docs /Historica.pdf)
- http://nicongonisnmi.blogspot.com.es/2009/06/la-tradicion-judeo-cristiana.html

EMAKUME ERROMATARRA

- google: www.culturaclasica.com/mujerantiguedad/mujerromana1.pdf.
- google: “Legislación romana y liberación femenina: una relación inconsciente” (rua.ua.es)
- <http://www.muyhistoria.es/h-antigua/articulo/hipatia-de-alejandria>

EMAKUMEA GOI ERDI AROAN: Emakume bisigodoa Hispanian.

- google: “Mujer y matrimonio en la España visigoda” (suit101)
- google: “Mujeres viriles en la Hispania Visigoda” (gredos.usual.es)
- google: “La monarquía visigoda y su política matrimonial: El reino Visigodo de Toledo” (revistas.usual.es)

EMAKUMEA GOI ERDI AROAN: Emakume musulmandarrak Al Andalusen.

- <http://www.arteguias.com/mujeral-andalus.htm> (La mujer en Al-Andalus).
- google: “BA-ritgerd-lokaskil-Margret_mujeres en el Andalus”. (estudio comparativo en la edad media de la mujer cristiana, musulmana y judía).(skemman.is)
- google: “mujer en el andalus revistacodice” (CabanillasBarroso).

EMAKUMEA ETA BEHE ERDI AROA

- <http://www.arteguias.com/mujeredadmedia.htm>
- <http://www.bibliotecagonzalodeberceo.com/berceo/adelinerucquoi/mujermedieval.htm>
- google: “imagen medieval de la mujer : Eva-Pecadora o María-Santa” (bibliotecadigital.uns.edu.ar/scielo.php)
- google: “Relación entre Mujer e Iglesia raco.cat”
- google: “raco.cat/index.php/DossiersFeministes/article/viewFile/102364/153575.”

EMAKUMEA ETA ERIZAINZA

- google: “Agnodice revistacodice” (Mujer ateniense, sIV,a.C., médica y ginecóloga. 26_MARTINGONZALEZ.pdf).
- google:” El género en el desarrollo de la enfermería” (bus.sld.cu)
- google:” Discriminación del género en la profesión de Enfermería”
- google: ”historia de enfermería”(aniorte nic.net).

EMAKUMEA ETA XVIII. MENDEA: Frantziako iraultza, industria iraultza, ilustrazioa...

- google: "Mujer y revolución" (e-ducativa.catedu.es) Sobre la Revolución Francesa)
- google: "Las mujeres en la revolución Francesa" (ticcal.org.)
- google: "Papel de la mujer en el siglo XVIII" (ugr.es)
- google: "la revolución industrial mekhi.blogspot.com".
- google: "Situación de la mujer en la II revolución industrial" (prezi.com)

FEMINISMOA

- google: "Historia del Voto Femenino" (mayores.uji.es)
- google: "Clara Campoamor y el voto femenino en España" (artearqueohistoria.com)
- https://es.wikipedia.org/wiki/Sufragio_femenino
- google: "historia del feminismo" (uclm.es/profesorado).
- google: "El feminismo atraviesa la historia" (tematico.asturias.es/imujer/upload)
- https://es.wikipedia.org/wiki/Primera_ola_del_feminismo
- google: "tercera ola feminista" (uam.mx.)
- google: "una aproximación a las teorías feministas" (universitas idhbc.es).

GENEROA

- google: "El genero: La construcción cultural de la diferencia sexual" (juridicas.unam.mx)(Marta Lamas).
- google: "fongdcam.org/manuales/genero"datos/docs/.pdf"
- google: "machismo y medios de comunicación" (http://www.redalyc.org/)
- google: "publicidad machista y contrapublicidad".
- google: "crítica del pensamiento amoroso".

PATRIARKATUA

- google: "el patriarcado una estructura invisible". (marmar2.pdf)
- http://generoconclase.blogspot.com.es/2009/03/el-patriarcado-una-estructura-invisible.html